

INTRODUCCIÓN A LA FILOSOFIA MORAL - LABURPENA

LABURPENA

Zer da morala? [¿Qué es la moral?]

Filosofia morala, moralaren izaera ulertzeko eta pertsonen nola jokatu behar duten ezagutzeko saiakera bat da. Morala definitzea ez da erreza, eta korrante ezberdinetatik kontrakoak dira definizioak ematen dira. Horregatik hobe da adibideen bidez azaltzea: ume anenezfaliko batek bizitza laburra izango badu eta gainera ez da kontziente izango, justua al da bere organoak horri esker biziko diren ume batzuei emateko hiltzea? Bi siamesen kasuan, zer dago ondo, "naturari bere bidea utziz" sei hilabetetara biak hiltzea, edo ebakuntza baten bidez indartsuenari (soilik) bizitzeko aukera bat ematea? Eta nork hartu behar du ebakuntza edo ez egiteko erabakia? Garuneko paralisia duen ume baten kasuan, eta ondorioz egin zaizkion ebakuntza guztiek eragiten dioten sufrimendu guztiarekin, bizirik mantendu behar da, edo gurasoek hiltzea legitimoa al da?

Horrelako judizio moral bat egiteko ondo argudiatuta (egiazkoak direnak) egotea ezinbestekoa da; eta bestetik, inpartziala izan behar dela. Arrazoiari egin behar zaio kasu, ez sentimenduei. Hau da, Morala minimoki arrazoi onenetan egon behar da oinarrituta. Baina hau ez denez beti horrela, eztabaida handia sortu du filosofoen artean.

Erlatibismo kulturalaren desafioa [El desafío del relativismo cultural]

Kultura ezberdinek kode moral ezberdinak dituzte, batzuentzat normala dena besteentzat pentsaezina izan daiteke. .

Erlatibismo kulturalarentzat dena da kulturaren araberakoa, baita morala ere. Horregatik defendatzen dute, etikan ez dagoela objetibotasunik, kultura bakoitza "bat gehiago" dela; beraz, ezin dela esan gizarte batzuetako ohiturak moralki okerragoak direla ekintzak soilik gure kriterio kulturaletik kritikatzeko ditugulako, eta progreso moralaren ideia ere zalantzan jartzen du, besteak beste.

Baina ohitura bat kritikatzeko denean, ezin ahal da kriterio neutralik egon? Esaterako ablazioaren kasuan, argi dago sektore baten bizitza okerrago egiten dutela, eta hori objetiboa da, beraz erlatibismo kulturala baztertzuz kondenagarria dela esan daiteke.

Hala ere, erlatibismo kulturak baditu bere alde onak: gure kriterioa arrazionaltasun absolutu batean oinarrituta ez dagoela pentsatzea, gure gizarteak ezaugarritzen baitu, eta jarrera irekia izan behar dela defendatzea (gure ohiturak kritikatzeki eta beste kulturak ezagutzeko). Dena den, kulturak aztertzean, ikusiko dugu benetan ez dagoela horren besteko ezberdintasunik kulturen artean, ezberdintasuna baloreetan baino gehiago sinesmenetan dagola. Gainera, ikusiko dugu nola kultura guztiek dituzten balore batzuk komunean (esaterako besteak hiltzea debekatuta egotea, edo orokorrean egia esatea).

Etikaren subjektibotasuna [El subjetivismo en la ética]

Subjektibismo etikoaren arabera, gure iritzi moralak gure sentimenduetan daude soilik daudenez oinarrituta, horregatik, ezer ez da objetiboki ona edo txarra. Norbaitek zerbait morala dela esatean, ekintza hori onartzen duela esan nahi du, eta alderantziz. Baina teoria honek ez du kontuan hartzen pertsona guztiak okertzen garela, eta ez da desadostasun moralak azaltzeko gai.

Horregatik emotibismoa agertu zen, aurrekoaren garapen bezala. Honen arabera hizkuntza moralak besteengan eragiteko eta norberaren jarrera eraskusteko balio du; hau da, funtsean jarrera ezberdinak besterik ez daude.

Ondoren, gertakari moralak dauden galdetzen du autoreak. Honi erantzuteko, kontuan hartu behar da gertakari moralak ez direla objektiboak eta baloreak ez direla soilik sentimendu kontua. Gainera, baieztapen moralen oinarrian hau indartzen duten argudio arrazionalak egon behar dira. Arrazonamendu hau ez da zientzia objektiboetan bezala ematen, baina horrek ez du kentzen arrazonamendurik ez dagoenik.

Morala erlijioaren arabera al da? [¿Depende la moral de la religión?]

Orokorrean morala eta erlijioa harremantzen dira, morala erlijioak determinatuko balu bezala.

Erljio nagusien arabera Jainkoa ezartzen ditu jarraitu beharreko bideak eta gero norberak erabakitzen du hauek jarraitu edo ez, beraz Jainkoak agindutakoa da ondo dagoena edo Jainkoak debekatutakoa gaizki. Baina honek arazo asko sortzen ditu, alde batetik atoeek ez dutelako Jainkoarengan sinisten, eta fededunen artean ere problematika handi sortzen da auzi honen inguruan (era arbitrarioan erabaki al du Jainkoak zer dagoen ondo edo ondo dagoena agintzen du bera ona delako?).

Etikaren inguruko teoria kristaua zuzenbide naturalean dago oinarrituta. Honen arabera existitzen den guztiak du erabilera bat, eta hori Jainkoak egotzi dio. Baina haratago joan eta gauzak "nola diren" ezartzeaz gain, "nola izan behar diren" ere ezartzen du, etikari ere izaera natural bat emanez.

Alabaina, teoria honek ez du indar askorik gaur egun, zientziari lekua utziz. Horregatik uste da gertatzen dena gertatzen dela kausa-efektu legeen ondorioz, eta inongo helbururik gabe. Horregatik, balioak ez dira naturalak, gizakiak sortuak dira; eta hauek ezartzeko arrazoimena da oinarria. Honek morala eta erlijioa banatzen dituelarik. Erljioak edo fededunek ez du honekin bat egiten.

Berekoikeria psikologikoa [El egoísmo psicológico]

Moralak eskuzabaltasunez (desinteres) jokatzeari eskatzen du. Baina ze puntutara arte? Berekoikeria psikologikoa deritzon teoriaren arabera inoiz ez dugu eskuzabaltasunez jokatzeko, ekintza guztiak interes indibidualak bultzatuak dira (ondo sentitzea, errekonozimendua, trukean zerbait jasotzea...). Adibidez, Hobbesen hitzetan, karitatea botere erakusketa bat izan daiteke, eta errukia guri gerta dakigula pentsatze hutsa.

Berekoikeria psikologiaren alde esan daiteke, alde batetik, ondo jokatzeko duenak ondo jokatzeko duela nahi duelako; bestetik, ondo sentiarazten gaituena egiten dugula. Baina hau ez da horrela, adibidez, batzuetan gauzak egitera behartuta egon zaitezkeelako, edo ondo sentitzen zarela lagundu ostean besteak ondo egoteari garrantzia ematen diozulako.

Ondorioz, dena ez da berekoikeriaz zein interes propioengatik egiten.

Berekoikeria etikoa [El egoísmo ético]

Berekoikeria etikoaren teoriak azaltzen du nola jokatu beharko litzatekeen: berekoikeriaz, soilik norbere onura bilatuz (ez besteena). Horrek ez du esan nahi besteena aurka egin behar denik, soilik norberak bere interesen alde egin behar duela.

Teoria honen alde esan daiteke: altruismoa kaltegarria izan daitekela benetan besteena nahiak ezagutzen ez ditugulako eta besteena intimitatea errespetatzen ez delako; indibidua

delako nagusi, eta indibidua ezin da beste batengatik sakrifikatu; moral orokorraren (denontzat ona dena egin) oinarria berekoikeria etikoa da, eta teoria honetatik azaldu daiteke moral orokorra.

Kontra esan daiteke: teoria honetatik ezinezkoa da interes-gatazkak konpontzea; bere baitan kontraesankorra da, beraz, hau horrela izanda teoria ez da zuzena; azkenik, guztiz arbitrarioa dela, desberdintzen dituelako indibidua eta gainontzeko guztiak, hori egoteko arrazoi sendorik ez dagoela.

Hau guztia kontuan hartuz, autoreak baztertzen du berekoikeria etikoa, defendatuz morala gainontzeko pertsona guztiz ere arduratu behar dela.